

06/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

2017KO IRAILAREN 25EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko irailaren 25ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Iñaki Merino Castro, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2017KO EKAINAREN 26AN ETA 2017KO UZTAILAREN 26AN OSPATURIKO UDAL PLENOAREN BILKUREN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2017ko ekainaren 26ko eta 2017ko uztailaren 26ko udal plenoaren bilkuren aktak aho batez onartu dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2017KO EKAINAREN 19TIK 2017KO IRAILAREN 14 BITARTE, 284 ZENBAKITIK 383 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2017ko ekainaren 19tik 2017ko irailaren 14a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- “KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIAREKIN BAT” MOZIOA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu eta Aratz Luisa Urkola zinegotziak irakurri duen ondorengo mozioa aho batez onesten da:

“Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari ateak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Anoetako Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako

herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.

3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz.”

4.- **GALDE ERREGUAK.**

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta bost direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.